

Balorezko Proposamenak

Ohera sartzerakoan normalean ez dago gustoko tenperaturan edo gauean zehar esnatzen gara hotz edo bero garelako. Arazo hau munduko pertsona gehienei gertatu zaio, arazoa ekiditzeko asmakizun bat sortu dugu. Gure asmakizunarekin ohearen tenperatura erregulatzea lortuko dugu. Nahi dugun tenperaturan jarri dezakegu eta ohera joaterakoan bero edo hotz egotea lortuko dugu, ahalik eta hoberen deskantzatzeko.

Gure helburu nagusia eguneroko bizitza erosoagoa egitea da, izan ere pertsonak gure lehen biziko kausa eta ondorioa izango da.

- Udako egun beroetan, edo klima beroko lekuetan gauak erosoagoak izango dira, errefrigerazio mekanismoak koltxoia hozteko aukera ematen baitu.
- Neguko egun hotzetan, edo klima hotzeko lekuetan ez dago maindire edo manta asko erabiltzeko beharrik, gure oheak koltxoia berotzeko ere balio baitu.
- Tenperatura desberdinak hainbat gaixotasun fisikoentzako onuragarriak izan daitezke.

ADEK ez da beste enpresak bezalakoa, gure ideiarene eraginkortasuna nabarmena delako.

Baina, zerk bereizten gaitu?

Argi dago, aurkezten dugun produktua ez dela beste koltxoiak bezalakoa. Koltxoi arruntek ez bezala, gure koltxoiak tenperatura erregulatzeko sistema bat dauka. Beraz, besteengandik bereizten gaituen ezaugarrietako bat, originaltasuna da. Bestalde, gure enpresako produktuen prezioa, beste enpresena baino merkeagoa ez izan arren, produktuen kalitatea eta gure enpresak eskaintzen dituen zerbitzuak hobeak dira. Izan ere, salmenta ondorengo asistentzia eskainiko diegu gure bezeroei.

Azkenik koltxoia pertsonalizatu ahal izango da egonkortasun desberdinaz aukeratuz gustuen arabera: latexko edo biskoelastikoa.

Prezioa hurrengoa izango da

- 90x200 tenperatura hotza eta beroarekin: 2650€
- 90x200 bakarrik tenperatura beroarekin: 2050€
- 150x200 terperatura hotza eta beroarekin: 2995€
- 150x200 bakarrik tenperatura beroarekin: 2400€

